

Bonba-autoa Gasteizen

Fernando Buesa hil dute atentatuan

Arabako buruzagi sozialistarekin batera oinez zihoan eskoltako ertzaina ere zendu zen leherketan

politika

Euskal presoak

Daniel Dergiri zerbait gertatu bazaio argi dezatela eskatu du haren aitak • 14

gizartea

■ Expolanges azoka gaur zabalduko dute, Parisen • 19

■ Zerri mihiak sortu du listeria izurria, Frantziako osasun agintarien ustez • 21

europa

■ IRAk ukatu egin du armak uzten hasiko dela soldadu britainiarrak alde egiten hastearekin batera • 31

mundua

■ Gutxienez 35 lagun hil dira Nigeriako iparraldean musulmanen eta kristauen arteko borroketan • 34

kirola

Futbola

Jose Maria Arrate: «Epaileen lana kritikatzan hasiko gara gu ere» • 37

kultura

■ Arsuagak Neanderthalgo gizakiari buruzko aurkikuntza berriak aurkeztuko ditu etzi Donostian • 47


■ FERNANDO BUESA Arabako PSE-EEko idazkari nagusia eta haren bizkartzain Jorge Diez Elorza ertzaina hil ziren atzo Gasteizen, buruzagi sozialistaren aurka egindako atentatuan. Egileek 20 kilo lehergaiz betetako bonba-auto bat erabili

zuten atentatua burutzeko. Arratsaldeko lau eta erdiak inguruan gertatu zen hilketak, Buesa eta bizkartzaina lehenaren etxetik oinez abiatu eta berrehun metro-ra. Eztanda Gasteizko erdialdetik ere entzun zen; Lehendakariatzatik ere bai, aten-

tatua gertatu zen lekutik nahiko hurbil baitago. Gaur egingo dira buruzagi sozialistaren aldeko hiletak. EAEko lehendakari Juan Jose Ibarretxek hiru eguneko dolua ezarri du Buesaren eta Jorge Diez Elorzaren omenez, gaurtik etzi arte.



FERNANDO BUESA



Fernando Buesa Blanco PSE-EEko bozeramailea zen Gasteizko Legebiltzarrean eta Arabako Batzar Nagusietan. 1979-83 bitartean Arabako foru diputatua izan zen, eta 1987an ahaldun nagusi izendatu zuten. Zinegotzi ere izan zen Gasteizen 1983-87 artean. 1991an Jaurilaritzako lehendakariorde eta Hezkuntza sailburu izendatu zuten. 1995 arte iraun zuen kargu horietan.

Ertzain eta suhiltzaile batzuk, bonba-autoa lehertu zen lekuan. Eskuinean, Fernando Buesaren gorpua ageri da, maindire batez estalia.

Ibarretxek hautsi egin du EHrekiko legegintzaldi ituna

► Alderdi eta eragile gehienek gaitzetsi dute Buesaren eta bizkartzainaren hilketa

► Enfrentamendu eskemak gainditzeko jokaleku demokratikoa eskatu du EHk

► Lehen mobilizazioak izan ziren atzo, eta gehiagotara deitu dute egunotarako